

OLANO

Se sitúa en una hondonada formada por los altos de Larrastrain e Iturralde, al Norte; Garracain al Oeste; Guenda al Levante; estando abierta en su orientación Mediodía, mediante el pasillo que forma el riachuelo Osegorpe, afluente del Zalla (Subialde o Lendia). La altitud media sobre el nivel del mar, que alcanza el caserío de este lugar, es de 594 metros.

Olano aparece citado por primera vez y con el mismo vocablo que actualmente posee en un documento fechado allí por el año 1257.

La población de esta localidad ha ido disminuyendo poco a poco durante los últimos 200 años. Así, según datos estadísticos recogidos, Olano poseía a principios del siglo pasado 61 personas. En la primera década de este siglo 29 habitantes y en el último censo de 1982, son 9 los habitantes que la pueblan. Hoy, solo un vecino lo habita durante todo el año, ya que los otros dos vecinos empadronados, lo habitan temporalmente.

OLANO

Iparraldetik Larrastrain eta Iturraldeko gainek, Hegoaldetik Garrakainek eta Ekialdetik Gendak eratzen duten sakanune batean kokatua dago, Hegoaldetik Zalla (Subialde edo Lendia) ibaiaren Osegarpe errekastoak ebakitzen duen pasadizoaren bidez irekia aurkitzen delarik. Herriska honen etxeteria kokatzen den batezbesteko altitudea, itsas mailatik, 594 metrokoa da.

Olano gaur egun duen deitura-hitz berarekin izendatua aurkitzen da ezagutzen den dokumenturik zaharrenean ere, han 1257. urtea aldera.

Herri honetako biztanleria ere beheraka joan da pixkana-pixkana azken 200 urte hauetan zehar. Horrela, bildu izan diren datu estatistikoen arabera, Olanok 61 herritar zituen iragan mendaren hasieretan. Mende honen lehen hamarkadan, berriz, 29 biztanle, eta 1982ko azken zentsuan 9 dira herriska honetan bizi diren pertsonak. Orain, herritar batek bakarrik irauten du urte osoan zehar, bertan erroldaturiko beste biek soilik aldizka egiten bait dute.

Iglesia parroquial. Espadaña, casa cural, casa concejo.
Abside románico.

Parroki eliza. Ezpataina, apezetxea, kontzejua.
Abside erromanikoa.

A este pueblo de Olano se llega a través del ramal que partiendo de la autovía con dirección a Zaítegui, atraviesa los dos barrios que conforman esta última localidad, y después de recorrer unos 1.200 metros. Como sucede en gran parte de los núcleos del municipio de Cigoitia, son varias las edificaciones de moderna construcción que allí se han levantado. Dos de ellas se sitúan antes de llegar al núcleo del pueblo y el resto dentro de aquél.

El corto caserío que compone este lugar se halla agrupado en torno a la iglesia que ocupa la posición más al Sur, con los distintos edificios separados unos de otros.

La iglesia parroquial, por su orientación y volumen, es el edificio más visible al ir acercándonos al lugar. Está dedicada a San Bartolomé. El ábside románico es recto, luciendo bello ventanal del mismo estilo. En el alzado Sur, semioculto por

Olanoko herri honetara iristeko, autobidetik Zaitegirako norabidean irtenez eta azken herri hau eratzen duten bi auzoak zeharkatuz aurrera jarraitzen duen errepidetik joan behar da, Zaitegitik aurrera beste 1.200en bat metro egin ondoren. Zigoitia udalerriko populaziogune gehien-gehienekin gertatzen den bezala, hainbat dira bertan jaso diren eraikuntza modernoko etxeak. Horietako bi hirigunera bertara heldu baino lehen aurkitzen dira, eta hirigunearen barruan gainerakoak.

Herriska hau osatzen duen etxeteria urria, Hegoalderantzagoko posizioa okupatzen duen elizaren inguruan aurkitzen da, batak besteengandik bananduriko edifizio desberdinekin.

Parroki eliza da, bere orientazio eta bolumenarengatik, herrira hurbiltzean errazkien ikusten den edifizioa. San Bartolomeri dedikatua dago. Bere abside erromanikoa zuzena da, estilo bereko leihate eder bat erakusten duelarik. Hegoaldeko horman, eta atxekita daukan eraikina erdiezkutaturik, beste leihate erromaniko bat ageri

Casa n.º 7: Accesos independientes a vivienda y cuadras. Iglesia Parroquial. Extraordinaria pila bautismal.

7 zk. etxea. Etxebizitzarako eta ikuiluetarako bereizitako sarrerak. Parroki eliza. Bataio-ponte aparta.

construcción aneja, parte otro ventanal románico. La bóveda es de cañón apuntado. La pila bautismal es muy interesante y una de las más antiguas de la Provincia. A los pies del templo se halla espadaña en la que se abren dos huecos donde se alojan las campanas. Dos son los edificios anejos al templo, la casa concejo, junto a la espadaña a los pies de aquél, y la casa cural, ocultando gran parte de su alzado Sur.

Dos son los caseríos que se levantan al Oeste de la iglesia, el más alejado, el catalogado con el n.º 7, es un sencillo edificio de planta rectangular acusada con la cubierta a dos aguas con el caballete perpendicular a fachada principal, con las superficies de sus vertientes distintas.

Dos son los accesos que se abren en el alzado principal que se orienta al Levante, el más grande da paso a las cuadras que ocupan la zona Norte y Oeste del edificio adquiriendo forma de "L"; el otro da entrada al portal a través del que se accede a la cocina y una habitación a mano izquierda y en el frente, la escalera que comunica con el piso donde se sitúan las habitaciones y el pajar.

da. Ganagari dagokionez, berriz, kainoi zorrotzekoa dugu hau. Bataio-pontea ere oso interesgarria da eta Probintziako zaharrenetakoa gainera. Elizaren oinetan ezpataina kokatzen da eta bertan kanpai bana daramatzaten bi bao irekitzen dira. Bestalde, bi dira tenpluari erantsita dauden edifizioak, kontzeju-etxea bata, ezpatainaren ondoan eta haren oinetan, eta apaizetxea bestea, elizaren egoaldeko hormaren zati handi bat estaltzen duela.

Bi dira, baita, elizatik Hegoaldera jasotzen diren baserriak ere: urrutienekoa, 7 zk.arekin katalogatua, oin-plano angeluzuzen nabariko eraikin sinple bat da, bi isuriko teilatuarekin eta galdurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra duena, isurien azalerak desberdinak dituelarik.

Bi sarrera ditu, bestalde, Ekialderantz ematen duen altxaera nagusiak: horietako handienak ikuiluetarako pasua ematen du (etxearen Ipar eta Mendebaldeko parteak okupatzen dituzte ikuiluek "L" baten tankeran); eta ataurrerako sarrera egiten du besteak. Hemendik, sukaldera eta ezkerretara dagoen beste gela batera joan daiteke eta aurrean, berriz, pisuarekin komunikatzen duen eskailera. Logelek eta lastategiak okupatzen dute pisua.

Castiza imagen de construcción maciza es la que ofrece el caserío n.º 6.

Eraikuntza trinkoaren irudi jatorra da 6 zk. baserriak eskaintzen duena.

El caserío nº 6, de ajado aspecto, presenta el acceso descentrado respecto de la vertical del caballete. Al igual que la gran mayoría de los caseríos, lleva el denominado muro corta-fuegos, que separa la zona vivienda de la zona de cuadras y pajar, que ocupan la parte anterior y posterior del edificio, respectivamente. La cocina y una habitación son las únicas dependencias de la planta baja. La escalera, frente al umbral del acceso, es de ida y vuelta, con el armazón y gradas de madera.

6 zk. baserria, ajatu itxurakoa, sarrera deszentratuarekin da gailurreko bertikalaren konparazioan. Beste baserri gehienek bezala, suhesi batez hornitua dago hau ere, etxebizitzari dagokion partea lastategiari eta ikuiluei dagokienetik apartatzen duela. Hark etxearen aurreko partea eta hauek atzekoa okupatzen dituzte, hurrenez hurren. Sukaldea eta gela bat dira behe-oineko gela bakarrak. Eskailera, sarrerako atalasearen pare-parean kokatua dago eta joan-etorrikoa da, zurezko armazoi eta mailekin.

Caserío n.º 4. Posee distribución ordenada de huecos.

4 zk. baserria. Baoak ordenan banatuta dauzka.

En el alzado Oeste y a nivel superior, se halla la era que posee acceso directo al pajar que se sitúa en la planta primera.

La edificación que se halla frente a la casa y limitando con el camino, además de utilizarse como gallinero, conejera, etc..., en su fondo se sitúa el ya en desuso horno de pan, cuya bóveda se proyecta al camino.

El caserío n.º 4 es el único que está habitado durante todo el año. Su fachada queda semiemboscada durante las épocas frondosas de su parra que recorre la misma y por los árboles frutales que se sitúan en el inmediato huerto delante de la casa, estando éste delimitado por tapia de mampostería en seco.

Mendebaldeko horman eta goragoko mailan, lehen oinean kokatzen den lastategira zuzeneko sarrera duen larraina aurkitzen da.

Etxearen aurrean eta bidearekin mugatuz aurkitzen den eraikina, oilategi, untxitegi, etab. bezala erabiltzeaz gainera, ogia erretzeko labeaz hornitua zen, gaur egun usaera hori galdu badu ere, eta berorren ganga biderantz irteten zen.

4 zk. baserria da urte osoan zehar jendearekin egoten den bakarra. Bere fatxada alde batetik bestera zeharkatzen duen mahasparraz eta etxetik oso hurbil kokatzen den baratzako frutarbolez erdi-estalia egoten da hostaje-garaian. Baratza, bere aldetik, harlangaitz lehorrezko pareta batek mugatzen du.

Además de su edificio principal que solo alberga la vivienda, que data del año 1886 según inscripción del dintel del acceso, lo forman las cuadras-pajar anexas al costado izquierdo y la era a continuación, pero a nivel superior, de tal manera que desde ella se accede directamente al pajar, con lo que el trabajo, para almacenar la paja que se cosechaba en la trilla, era mucho menor, que si se tuviese que subir a altura superior, si el lugar de producción estuviese a nivel más bajo.

La distribución interna de la vivienda es la siguiente: El portal es el elemento distribuidor de las dependencias que se sitúan en la planta baja. La cocina y el horno a mano izquierda; una habitación y el comedor a mano derecha y, en frente, la caja de la escalera que atiende al tipo de ida y vuelta con descansillo corrido. En el piso, la disposición es similar, actuando en este caso el comedor de elemento distribuidor y comunicador con el reso de las habitaciones a uno y otro lado del mismo.

El caserío n.º 3, hoy utilizado como auxiliar, está formado por tres cuerpos de diferente altura. El más al Sur presenta una distribución simétrica de huecos en la zona destinada a vivienda y la prolongación de uno de los extremos de la fachada. La cabaña y era se asientan junto a ese alzado lateral.

El edificio catalogado con el n.º 2 corresponde al lavadero, cuyo alzado mediodía se halla abierto para dotar de luz a la parte interna del mismo. La fuente en su parte posterior, queda comunicada con aquel a través del bebedero.

Por último, el edificio más al Norte del lugar es el catalogado con el n.º 1 y corresponde a los restos de una casa torre. Micaela Portilla dice de ella: "Es en apariencia un caserío, construido en piedra de mampostería con sillares en sus esquinales; pero examinándolo con atención, comprendemos que se trata de una casa fuerte rural, situada en la avanzada de Olano hacia un pequeño arroyo, que próximo a la casa por su costado Norte, le sirve de foso natural". Prosigue: "Hasta tiempo reciente ha conservado su primitiva portada, situada en la fachada Sur. Se trata de un

Kasu honetan eraikin nagusia etxebizitzak bakarrik okupatzen du eta 1886an eraikia izan zen, bere sarrerako atalburuak daraman inskripzioan irakur daitekaen bezala. Eraikin honez gainera, ikuiluek eta lastategiak osatzen dute baserri hau, eraikin nagusiaren ezker hormari erantsitako bastiza batean bait dauzka horiek. Gero, badu baita larraina ere, goragoko mailan, eta horrexegatik zuzen-zuzenean sar daiteke bertatik lastategira. Horrela, jakina, garia jo ondoren gelditzen zen lastoa jasotzeko lanbidea asko errazten bait zen, goragoko maila batera jaso behar izanda baino.

Etxebizitzaren barneko banaketa honelaxe doa: Ataurrea da beheko oinean aurkitzen diren barrundegien elementu banatzailea. Sukaldea eta labea ezkerretara; gela bat eta jangela eskuinetara, eta aurrean, joan-etorrizko eskailera-kaxa, truin korrituarekin. Pisuan ere antzekoa da banaketa, kasu honetan elementu banatzaile eta gainerako gelekiko komunikatzaile bezala salak jokatzen duelarik.

3 zk. baserria, gaur egun lagungarri bezala erabilia, altuera desberdinetako hiru gorputzez osatua dago. Helgoaldekoenak bere baoean banaketa simetrikoa erakusten du etxebizitzatara destinaturiko partean eta fatxadaren alboetako baten luzapenean. Etxordea eta larraina albo-horma horren ondoan finkatuak daude.

2 zk.arekin katalogatutako edifizioa ikuztegiari dagokio, eta honen Hegoaldeko pareta irekia da, argiari barrura satzen uzteko. Iturria bere atzekaldetik harekin komunikatua geratzen da, edaskaren bidez.

Azkenik, herritik Iparraldenera egiten duen edifizioa 1 zk.arekin katalogatua dugu eta dorre-etxe baten erexei dagokie. Honela dio Micaela Portillak etxe honetaz: "Itxuraz baserri bat da, harlangaitzez eraikia, kantoietan harlanduak dituela; baina arretarekin aztertuz gero, berehalaxe ohartuko gara gotorretxe landatar bat dela, Olanotik aurrera errekasto baterantz kokatua, honek -errekastoak alegia- haren Iparraldeko saihets ondotik iraganez, luebaki natural bat bezala zerbitzen diolarik". Eta jarraitzen du: "Oraindik oraintsu arte gorde izan du bere jatorrizko portada,

Desangelada imagen ofrece el Caserío nº 3.
Lavadero.
Construcciones anexas a la parte posterior del caserío nº 3.

Benetan irudi desitxuratua eskaintzen du 32 k. baserriak.
Ikuztegia.
32 k. baserriari atzekaldean eransten zaizkion eraikinak.

arco de medio punto de grandes dovelas, demolido para dar paso a los carruajes y maquinaria agrícola, cuando la casa quedó convertida en almacén".

En las fachadas Este y Oeste se abren aspilleras rústicas que confieren a la casa su antigua función de casa fuerte.

Hegoaldeko fatxadan kokatzen zena. Dobelarri handiz egindako erdipuntuko arku bat zen, baina eratsi egin zioten etxea biltegi bihurtzean, gurdiei eta nekazaritzako makineriari bide egitearren".

Ekialde eta Mendebaldeko fatxadetan, zirrikitu oies batzuk irekitzen dira, eraikinari garai batean zuen gotor-etxearen funtzioa emanez.

Antigua casa-fuerte en Olano.

Olanoko aintzinako gotorretxea.

El estado que actualmente presenta es deplorable y semienmascarados sus alzados Oeste y Norte por la abundante vegetación que allí ha crecido desde que dejó de ser habitada, allá por los años siguientes a la última Guerra Civil española.

Gaur egun nahiko egoera penagarrian aurkitzen dela esan behar da, Mendebaldeko eta Iparraldeko hormak Espainiako azken Gerra Zibil ondorengo urteetan hor bizi zen jendea irten zenez geroztik sortu den landaretzak erdi-mozorrotuta bait dauzka.